

# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

330 Zb.  
[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

>> 2018ko Abendua



**Kaixo, gizarte  
hezitzailea  
naiz**

**Hola, soy  
educador/a  
social**



Kaixo, **nire izena Rayco da** eta udalerriko ingurune irekian lan egiten duen gizarte hezitzailea naiz. 2017ko urrian, Getxoko Udalean 25 urtez lanean daramatzan SISE-SIP zerbitzura (Gizarte heziketako esku hartze eta esku hartze psikosozialeko zerbitzua) batu nintzen. Nire lan esparrua egunerokotasunean kokatuta dago, gizareratze prozesuen promozioa eta sortutako beharren arabera bideratzen, laguntzeko

eta informatzeko helburuarekin. Parkeetan, eskolako patioetan, Algorta eta Romoko Gazteleketan edota intereseko jardueraren bat antolatzen aurkitu nazakezu, eta era iraunkorrean sare sozialetan nirekin kontaktatu dezakezu:

Facebook: **Gizarte Hezitzaile Getxo**. Instagram: **gizartehezitzailegetxo**. Whatsapp: **688.89.89.06**. Ez izan zalantzarik, EGIZU!

## 18 urte badituzu, ibil zaitez European zehar DiscoverEUrekin

Europako Batasunak atzera hartu du 18 urteko gazteak laguntzeko ekimena, Batasuna osatzen duten herrialdeetan barrena bidaiatu eta horiek ezagutzeko, alegia. Horretarako, #DiscoverEU-ren bigarren deialdia zabaldu du, gutxienez 12.000 gazteak European zehar ibil daitezela, horren aniztasuna hobeto ulertu, bere aberastasun kulturalaz gozatu eta lagun berriak egiteko. EBko kide diren 28 estatuetako bateko herritartasuna behar da izan, egun bat eta hilabete baten arteko bidaiari antolatuta, gutxienez kide den estatuetako batera bisita proiektatu eta DiscoverEUren enbaxadore bihurtzeko jarrera izan. Izena emateko epea abenduaren 11ra arte dago zabalik eta bidaiari 2019ko apirilaren 15etik urriaren 31ra bitartean egingo dira. Bidaiaren zati handiena trenez egingo da, nahiz eta leku guztietara erazago iristeko, bidaiari bonoetan garraio bide alternatiboak ere sartuko diren, autobusak eta ferryak, kasuak kasu. Salbuespen gisa, eta beste garraio biderik ez dagoenean, bidaiari hegazkinez egitea baimenduko da. Horrela, urrutiko lekuetan edo uharteetan bizi diren gazteek ere parte hartzeko aukera izango dute. Argibide gehiago: [euodesk@injuve.es](mailto:euodesk@injuve.es).

## BEKAK SARIAK

\* **533 beka ingeles, frantses eta aleman ikastaroak egiteko** atzerrian udan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, DBHko 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat (2018-2019), Eusko Jaurlaritzak antolatuta. Aurreko ikasturtean 7,00 puntuko gutxienezko nota lortu behar izan da eskatutako hizkuntzan/hizkuntzetan, eta 16,00 puntuko edo gehiagoko puntuazio osoa izan aurreko ikasturteko batez besteko nota eta eskatutako hizkuntzaren nota batuta. Eskaerak aurkezteko epea: abenduaren 17ra arte. Informazioa: EHA 220, 2018-11-154 <https://bit.ly/2TXIHWR>

\* **"Gloria Fuertes" olerki gazteen saria**, 16 eta 25 urte bitarteko gazteentzat. Saria: 300€ + lana argitaratzea. Lanak aurkezteko epea: abenduaren 31 arte. Informazio gehiago: Fundación Gloria Fuertes, posta-kutxa 19.186, 28080 Madrid. [fundacion@gloriafuertes.org](mailto:fundacion@gloriafuertes.org) eta <https://bit.ly/1w8OrWJ>

### Romoko gaztelekuaren programazioa

#### Abendua

**Hilak 7, osteguna:** SUKALDARITZA: PIZZAK  
**Hilak 9, igandea:** PELIKULA  
**Hilak 12, asteazkena:** IRTEERA: ERROBEDAK  
**Hilak 14, ostirala:** ASANBLADA  
**Hilak 15, larunbata, eta 19, asteazkena:** TAILERRA: LEGO  
**Hilak 16, igandea:** SUKALDARITZA: JANARI INTERNAZIONALA  
**Hilak 21, ostirala:** SUKALDARITZA: SUSHI  
**Hilak 22, larunbata:** EKITALDIA: GABON JAIA  
**Hilak 28, ostirala:** MERENDOLA: URRIKO URTEBETETZEAK  
**Hilak 29, larunbata:** IRTEERA: UGP/PIN

### Algortako gaztelekuaren programazioa

#### Abendua

**Hilak 12, asteazkena, eta 28, ostirala:** EUSKARAREN HILABETEA  
**Hilak 14, ostirala:** TAILERRA: ANIME MARRAZKETA  
**Hilak 16, igandea:** IRTEERA: UK SKATEPARK  
**Hilak 18, asteartea:** MASTER CHEF: GABON-ERREZETA  
**Hilak 19, asteazkena:** GABON POSTALA  
**Hilak 21, ostirala, eta 22, larunbata:** ESKULANA: BUZTINA  
**Hilak 27, osteguna:** TAILERRA: INSTAGRAMER IZAN NAHI DUT!  
**Hilak 29, larunbata:** IRTEERA: UGP



"Wanted" Ideia Lehiaketako bigarren saria izan zen, 2017an

## "Azkona" artisau-garagardoaren egitasmoak eskualdeko negozioetarako trantsizioa hasi du, sustapen fasearen ondoren

**Azkona** proiektuak, garagardo artisau-enpresa bat abiatzea helburu duela, gogotsu ekin dio bere ibilbideari. Gazteei zuzendutako 2017ko Wanted Ideia Lehiaketaren bigarren saria lortu zuen. Javier Zubeldiak, Markel Herrerok, Josu Zubizarretak eta Maria Barrenak bultzatutako proiektua da, eta bere helburua Getxon garagar-

doaren kultura aberastea da, baita artisau-garagardoaren munduak eskaintzen dizkigun zapore eta usain gozo berriak dastatzeko gogoari bultzada eman ere. Enpresa martxan jartzeko, jasotako saria baliatu zuten, 4.672€. Udan, eskualdeko udalerrietan promozioa egin eta gero, **Azkona** taberna eta jatetxeetan hasi da sartzen.

**Nolako izan zen ibilitako bidea, Wanted Lehiaketara iritsi arte?**

Azkona izan aurretik adiskide talde bat ginen, garagardoa egitera jolasten zuena. Garagardo desberdinen arteko aldeak minimoak ziren eta beste artisau-estilo batzuk probatzean, guretzako garagardoren bat egitea otu zitzaigun, taldean gozatzen. Saiakera askoren ondoren, zenbait errezeta prestatu genituen, ezagunen artean harre-ona izan zutelarik. Horrek bultzatu gintuen sariren batean parte hartzea, eta Sevillakoa aukeratu genuen; urrea lortu genuen gure garagardo beltzarekin (Porter diferente bat) eta brontzea gorri melekak batekin (Amber Ale oso maltosa bat). Bultzada moral horren ostean, enpresa gisa formalizatu eta Azkona proiektua Wanted lehiaketan aurkezteko erabaki genuen; lehiaketak oinarri ekonomikoa bermatu zigun aurrera egiteko.

**Zer dela eta Azkona izena?**

Azkona jaurtitzeko arma zen, tokian tokiko hainbat erresis-

tentziek erabiltzen zutena Inperio Karolingioaren zabalkuntzari aurre egiteko. Garagardo botilatxoari ere heldu egiten zaionez, sinboloa izan zitekeela iruditu zitzaigun, gure proiektuaren ikuspegia ezin hobe laburbiltzen duena. Garagardo-industria handiek proposatzen duten inbasio bateratzaile eta sinplifikatzaileak ez bezala, tokian tokiko erresistentzia horiekien identifikatzen gara, autonomiaz egindako garapenaren alde. Hortik dator gure eslogana: Heldu zure Azkonari.

**Egun, zein egoeratan dago Azkona?**

Udako promozio etapa batetik atera berriak gara, Berango, Barrika, Algorta, Romo, Areeta, Erandio, Portugalete, Santurtziko... azoka eta ekitaldietan egin duguna. Emaitzak uste baino askoz hobekoak izan dira. Orain, oinak lurtean ipini eta eskualdeko negozioetan, taberna eta jatetxeetan, sartzen hastea dagokigu. Horretarako ari gara lanean eta laster gure garagardoa getxotarrak beren aisialdian dabilzan alderdi

hauetatik dabilela esateko moduan izango gara. Dagoeneko interesa agertu dute hainbat tabernek.

**Eta etorkizunari begira, zer?**

Ez dugu bakarrik nahi egungo artisau-garagardoaren merkatuaren barruan toki bat edukitzea, baizik eta aldaketa kultural bat nahi dugu garagardoa kontsumitzeko eran, aipatutako tokia zabaldu, enpresa aniztasunarentzat gero eta toki gehiago izan dadin. Nork bere nahi profesionalak ditu, Azkonatik bereiztuak. Epe ertainera, enpresa txiki bat izatearekin konformatzen gara, gure inguruko jendeari esperimendu eta mugak zabaltzeko aukera emango diena, artisau-garagardoaren zapore eta aromei dagokienez. Epe luzera, oso gustukoa litzaziguke Getxo eta inguruak aukerakoa, autonomoagoa den garagardo kontsumo jakin batean aitzindariak izaten laguntzea, eta ekonomikoki indartzea. Oraindik bide asko geratzen zaigu egiteko. Azken finean, ibiliz egiten da bidea.

## Wanted Ideia Lehiaketaren tailerra, Getxo Elkartegian

Wanted Ideia Lehiaketaren barruan, lan saio bat egin zen iragan azaroan Getxo Elkartegian. Tailer horretan, azken lau hilabeteetan lehiaketan proiektuak aurkeztu dituzten sustatzailer gazteek parte hartu zuten. Lehiaketa 18 eta 30 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta. Guztira zortzi dira aurkezturiko proiektuak. Wanted Gazteria Zerbitzuaren eta Sustapen Ekonomikoaren (Getxolan) arteko lankidetzari esker eta, batez ere, bertan haien proiektuekin parte hartu duten gazteei esker



egin izan da azken 9 urteetan. Aurtengo berrikuntza nagusia izan da proiektuei ekarpenak egin dizkieten profesionalak ere parte hartu dutela tailerlean, aurkeztutako proiektuak aberastu eta hobetzeko. Ondorioz,

lan saio hau oso emankorra izan zen, non, besteak beste, ekonomia zirkularraz, gastronomiaz, zinemaz, hirugarren adinaz, eta abarrez hitz egin zen. Hurrengo urratsa aurkeztutako behin betiko proiektuak aztertzea izango da eta horietako bakoitzari aurrera jarraitzeko proposamen zehatza egitea. Urtarrilean jakingo da zeintzuk diren lagunduko diren proiektuak eta nolako laguntzak emango zaizkien. Programari buruzko argibide gehiago: [www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria) eta #WantedGetxo.